

GEZURTIAREN PARADOXA

Feliciano Pelaez

Gezurtiaren paradoxa hizkuntzan gertatzen den paradoxa-era bat da. "Gezurra esaten ari naiz" edo "Gezurretan nabil" esaten dugunean paradoxan sartzen gara, hau da; esaten duguna gezurra bada gezurra al da esaten ari naizena? eta egia bada esaten ari naizena, gezurra esaten ari naizela, ez al nabil gezurretan?... paradoxa bat da, azkenean ez baitakigu gezurretan gabiltzan ala ez.

Nere lanean paradoxa-mota honi soluzio logiko bat ematen saiatu naiz. Soluzio hau Situazioen Teoria deritzon hizkuntzaren analisi logikoaren ikuspegi berri baten argitan eratua da. Gaiaren ulerpen oso bat lortzeko Situazioen Teoriak planteatzen dituen berrikuntza garrantzitsuenak azaltzen ditut, metodo berria hizkuntza analizatzeko teoria logiko tradizionalarekin alderatuz, teoria honetan paradoxak ez baitzuen soluzio argigarririk.

Sarrera

Gezurtiaren paradoxa hizkuntzan gertatzen den paradoxa-era bat da. "Gezurra esaten ari naiz" edo "Gezurretan nabil" esaten dugunean paradoxan sartzen gara, hau da; esaten dudana gezurra bada, gezurra al da gezurra esaten ari naizela?, eta egia bada gezurra esaten ari naizela ez nabil gezurretan? .. paradoxa bat da, azkenean ez baitakigu gezurretan gabiltzan ala ez.

Hizkuntzaren filosofiaren munduan ordea "gezurra" terminua erabili beharrean "faltsua" esaten dugu. "Gezurra" dela esateak zenbait konnotazio ekartzen baititu berekin: zera esaten duenaren asmoa sartzten baita kasu horretan, hau da, gerta daiteke adibidez norbait engainatzeko edo norbaiti min ez egiteko gezurretan ibiltzea, edozein eratan ziur egon ni oraintxe bertan ez naizela gezurretan ari. Ondorioz "gezurretan nabil" esan ordez "esaten dudana faltsua da", "esaten ari naizena faltsua da", "proposamen hau faltsua da" edo "proposamen hau ez da egiazkoa"... esango dugu. Hauxe litzateke gezurtiaren paradoxaren formarik sinpleena eta beste adibide konplikatuagoak ere badaude.

Logikarien artean proposamen horren (gezurtiaren proposamena edo gezurtiaren paradoxaren proposamena) egi balorea kontsideratzerakoan paradoxa ikusten dela esango dute; erabakitzeke ezintasuna ematen da. "Proposamen hau faltsua da" proposamena egiazkoa gertatzen bada,

"de facto" ematen bada "1"¹, orduan faltsua izan behar du, "0", eta faltsua bada, "0", ez bada ematen orduan beharraz egiazkoa, "1", izango da, ezin dugu proposamenaren egi balorea erabaki.

Hizkuntzaren filosofoak horrelako paradoxa logikoekin topatu izan direnean ez diete soluziorik aurkitu gehienetan eta ezin erabakitzea bere horretan utzi izan dute logikaren misterio bat balitz bezala. Logikoki ez dauka inongo akatsik bere barrenean paradoxak, osoa eta koherentea da paradoxa gehienetan. Lan honetan arduratzen gaituen gezurtiaren paradoxaren analisiak ordea ezin erabakitzea bere horretan uztea onargarria ez dela du abiapuntutzat. Situazioen teoriaren² arabera, paradoxa eta ezin erabakitzea ematen bada hizkuntzaren behar bezalako analisirik egin ez delako da. Gehiago esanda, hizkuntza aztertzeke erabili den tresnaren, -logikaren-, akatsa da, ez delako nahiko ona hizkuntzaren eguneroko erabileran ematen ez den paradoxa desagertarazteke. Edo hobe esanda, hizkuntza analizatzeko tresnak berak, logikak, sortua da paradoxa hizkuntzan beraz ez baitago paradoxarik ezta kontraesanik ere. Tresna hobetu egin behar dugu hizkuntza aztertzeke, ikuspuntu berri bat planteatzen dute pentsalari hauek, paradoxa xahutuko duena eta bide berriak irekiko dituen.

Lan honetan paradoxen adibide gehiago azaltzetik hasiko gara arazoa argiago gera dadin. Gero historia pixka bat eginez, Tarskik gezurtiaren paradoxaren arazoa ikusita hauxe

soluzionatzeko egin zuen saiakera azaldu eta aurkitzen zaion akatsa erakutsiko dugu, hizkuntzaren filosofo tradizionalen jarrera aurreratuz. Laugarren puntuan analisirako beharrezkoa den aparatu logiko-matematikoaz arituko gara apur bat; multzoen teoria klasikoaren gezurtiaren proposamenaren barneratu ezina eta Aczelen³ irtenbidea hitz gutxitan agertuz. Bostgarren puntuan situazioen teoriaren aitzindari izan zen Austin-en⁴ hizkuntzaren filosofiaren ikuspegi berria tradizionalaren aldean kontrajarriz esplikatu dugu, eta gero situazioen teoriak erabiltzen duen hizkuntzaren analisi berria zabalago azalduko dugu. Azkenik ikuspuntu berri honen bitartez gezurtiaren proposamena paradoxa bezala nola desagertzen den erakutsiko diogu irakurleari.

Gezurtiaren paradoxaren adibide gehiago

- "esaten ari naizena faltsua da"
- "baieztapen hau ez da egiazkoa"
- "zerrenda honetako hirugarren perpausa faltsua da"

Hirugarren perpausak bere burua du baita ere erreferentziatzat nahiz forma lexikoa berdina ez izan.

- "proposamen hau ez da egiazkoa" dioen proposamena egiazkoa da baldin eta bakarrik baldin "proposamen hau ez da egiazkoa" dioen proposamena ez bada egiazkoa. Honetan paradoxa zehatzagoa da eta kontraesana nabariago ikusten da.

- Gezurti-gurpilak" 1- Bigarrenak adierazten duen proposamena egiazkoa da.

2- 3.ak adierazten duen proposamena egiazkoa da.

3- 4.ak adierazten duen proposamena egiazkoa da.

4- 5.ak adierazten duen proposamena egiazkoa da.

5- 6.ak adierazten duen proposamena egiazkoa da.

"n"- 1.ak adierazten duen proposamena ez da egiazkoa

Azken proposamenak paradoxa sortarazten du; n. proposamena E bada 1.a F izango da eta ondorioz proposamen guztiak aurreraka n.a barne ere faltsuak izango dira, kontraesana ematen da. n. proposamena F bada 1.a E izango da, baina gainera n-1. proposamena F izango da, eta horrela atzeraka denak Fak izango dira 1.a barne eta berriz kontraesana ematen da, paradoxa da.

Agian adibide argiago bat Tarskik azaldu zuena izango da: Txartel bat daukagu zeinaren alde batean, A aldean, "bestaldean jartzen duena ez da egiazkoa" jartzen duen eta beste aldean, B aldean, "bestaldean jartzen duena egiazkoa da" jartzen duen.

<p>A bestaldean jartzen duena ez da egiazkoa</p>

<p>B bestaldean jartzen duena egiazkoa da</p>
--


Proposizio hauen egi baloreak kontsideratzen baditugu, A aldean jartzen duen "E" baldin bada orduan B aldean jartzen duenak "F" izan behar du eta B aldean jartzen duena F bada orduan A aldean jartzen duenak ere F izan behar du, kontraesana ematen da. Hauxe da paradoxa. A aldean jartzen duena aldiz, F baldin bada B aldean jartzen duenak ere egiazkoa izan behar du eta berriz ere kontraesana ematen da, hau da, paradoxa.

Beranduago ere komentatuko dugun beste paradoxa adierazgarria Bizarginaren paradoxa da, B. Russell-ek aurkeztu zuena: "Badago Oxford-en gizon bat bere buruari bizarra mozten ez dioten gizon guztiei, eta bakarrik hauei, bizarra mozten diena." Perpaus honen arabera mundua, Oxfordeko gizonen multzoa, bi zatitan banatuta gelditzen da. Baina orduan zein multzotan sartzen da bizargina?, nork mozten dio bizarra bizarginari?, noski berak bere buruari, baina orduan zein multzotan sartzen da? bere buruari bizarra mozten dietenen multzoan ala bizarginak berak bizarra mozten dietenen multzoan? honetan dago paradoxa.

Bizargina beren buruari bizarra mozten dietenen multzoan sartzen badugu, bizarginak bere buruari bizarra mozten baitio, ez da bizarginak bizarra mozten dienen multzoan sartuko, baina bizarginak berak mozten dio bizarra bizarginari; berez beste B multzo honetan ere sartu beharko zen. Baina mundua, Oxfordeko gizon guztien mundua, bi multzo bereiztu horietan banatuta baldin badago bizargina ezin da bi multzoetan sartu, batean ala bestean egon behar du, munduaz kanpo ez dago bizargina. Oxfordeko gizon bat baita. Honetan datza paradoxa.

Ikusten denez, autorreferentzia eta zirkularitatea sartzen dira jokoan gezurtiaren paradoxaren arazo honetan. Beren buruaz ari diren perpausak dira eta beren buruaz beren egi baloreaz mantentzen dute zerbait, alegia, osatzen duten proposamena faltsua dela.

Beren buruaz ari diren proposamen guztiek ordea ez dituzte gezurtiaren proposamena bezala paradoxak sortzen. Adibidez "egiati"aren proposamena dago; "esaten ari naizena



egiazkoa da" edo bestelako hau: "perpaus honek bost hitz dauzka"...

Adibide gehiago

Paradoxa hauek infinituarekin eta autorreferentziarekin duten erlazioa ikusteko adierazgarri iruditzen zaizkidan "irudi" batzuk bururatu zaizkit:



- Behin beste aldeko tren batean nindoala konpartimentuaren barrenean nengoela zutik jarri nintzen eta tren hauetan konpartimentuen goiko aldean bi ispilu bata bestearen parean egoten direnez eskua altxatu nuenean ez dakit nik zergatik infinitu esku, bai alde batera bai bestera, bai aurrean bai atzean, ikusten ziren, sakontasunean galtzen ziren, isladatu egiten ziren eta infinitu ziren. Txundigarria izan zen, hortxe indeterminazioa eta infinitua azaltzen ziren. Sakontasunean plano bakoitzak aurrekoa zuen erreferentziatzat, aurrekoa isladatzen zuen eta denak nere eskua erdian atera nuenetik. Fenomeno hauetan ispiluek argia isladatzen dute eta argi-izpiak ispilu batetik bestera etengabe isladatzen dira geure begientzat plano infinitu erakutsiz. Infinitu dira, argiak azalpen honetan ez duelako isladatzeari uzteko arrazoirik eta argi-izpiak etengabe ibiliko dira ispilu batetik bestera jauzi eginez geure begientzat plano gehiago eta gehiago azalduz, hainbat eta txikiago bata bestearen barrenean. Infinitua pentsatu egiten dugu baina ikusi gabe, geure ikusmenak ezin duelako indeterminatua den ezer antzeman.

Era berean gezurtiaren proposamena bere buruaz ari da, ezin dugu proposamenaren egi balorea, E ala F ulertu plano batean gelditzen ez bagara proposamena ez determinatua delako. E bada orduan F, baina F bada orduan E, eta E bada orduan F.. ez determinatua da etengabeko segidan, ezin gaitzke ados jarri, ezin da erabaki. Infinituaren irudi honetan ere ezin da irudi bera determinatu, plano batean beti beste plano txikiago batek egon behar du, horrela infinituraino.

Beste adibide bat bere burua koadro bat pintatzen koadro batean pintatzen duen pintorearena da. Pintatzen ari den koadroa bere buruarena koadro hori bera pintatzen da. Koadro horren barrenean infinitu koadrok bata bestea baino txikiago, denak berdintsuak, egon beharko luke, indeterminatua eta bukatzina litzateke koadro hori.

Beste aldi batean aldizkari bat ikusi nuen. Aldizkari honen aurreko azalean aldizkari bera bere azalarekin aurrean erakusten zuen tipo bat zegoen. Aldizkari txikiagoaren barrenean beste aldizkari batek egon behar zuen eta horrela infinituraino. Ezinezkoa da gizonak, handienak, eskutan zuen aldizkaria benetakoa izatea, azalak behintzat trukatuta egon beharko zuen; azala ondo egina egon zedin azalerako argazkia egiterako orduan gizonak aldizkariaren azala bera, oraindik egina ez zegoena, eduki beharko baitzuen eskutan eta hau ezinezkoa da.

Gezurtiaren proposamenean proposamen beraren barrenean proposamen berbera dago eta gainera zerbait adierazten du proposamenari berari



Barne-multzo bakoitza "p" multzo bat da, gezurtiaren perpausaren multzoa

buruz, faltsua dela alegia. Gezurtiaren perpausaren irudia eginez gero hau ere indeterminatua gertatzen da.

Tarskiren saiakera

Tarski bere garaian gezurtiaren paradoxaz arduratu zen eta soluzio bat bilatzen ere saiatu zen. Hala ere berehala konturatu zen aurkitu zuen soluzioak hizkuntza formaletarako bakarrik balioko zuela.

Tarskiren arabera proposamen baten egitasuna ala faltsutasuna ezin daiteke erabaki proposamen hori formulatu den maila berean. Proposamen horren egi balorea erabakitzeko beste hizkuntza altuago bat behar dugu. Hizkuntza honek proposamena formulatu den objektu-hizkuntzaz eratu daitezken proposamen edo perpaus guztiak barneratu beharko lituzke eta gainera

hauen egi baloreaz erabakitzeko erregela-sistema ere izan beharko luke; hau metahizkuntza izango litzateke. Tarskik aipatzen dituen hizkuntzak hizkuntza formalak dira; zenbait terminu, zenbait juntagailu eta zenbait formazio-erregelez osatuak diren hizkuntza mugatuak dira, hauek ez dute hizkuntza naturalak bezala logikarekin uztartzeko arazorik, logikak sortuak direlako.

Hortaz Tarskiren txartelaren paradoxan txartelaren alde batean esaten duenaren egi baloreaz erabakitzeko beste metahizkuntza goragoko bat behar dugu, ezin da hizkuntz maila berean esan beste aldean adierazten duen proposamena faltsua ala egiazkoa den. Eta perpaus batek bere buruaz ezer erabakitzea ere galerazita gelditzen da.

Honela hizkuntzen arteko mailaketa emango litzateke eta hizkuntzen artean

bezala zientzien arteko estratifikazioa. Tarskiren teoriak diskurtsu zientifiko-matematikorako balio du, ez ordea hizkuntza naturaletarako.

Tarskik dioenaren arabera eguneroko hizkuntzan ez litzateke posible zentzuz autorreferentzia erabiltzea eta egiatasunaz ala faltsukeriaz erabakitzea. Autorreferentzia ordea askotan erabiltzen dugu eta inongo paradoxarik sortu gabe, "egiati"aren proposamena ez litzateke posible bestela. Hizkuntza naturaletan ez da ematen horrelako mailaketarik, edozer gauza har dezakegu erreferentziatzat, baita proposamenak berak ere, hizkuntza objektu-metahizkuntza bereizketarik egin gabe. Proposamenez egiazkoak ala faltsuak diren inongo kontraesanik gabe esan dezakegu. Berriz esanda, hizkuntza naturaletan gauza asko eta askoz hitz egin dezakegu eta ia edozer gauza izan daiteke esaten dugunaren erreferentzia. Horien artean esaldiak, proposamenak eta perpausak daude; hauetaz hitz egin dezakegu eta hauetaz esan dezakegun gauzetako bat esan ditzakegun mila gauzen artean hauek egiazkoak ala faltsuak diren da. Geroago esaldi, perpaus eta proposamen terminuak bereiztuko ditugu argiago. Gainera autorreferentzia ere, proposamen bat bere buruaz ezer esatea ere onartuta dago hizkuntza naturaletan.

Adierazgarri bezala faktore enpirikoek paradoxa bat sor dadin ala ez eragin erabakiorra duten kasu bat aurkezten dut:

A.- "Garaikoetxeari egindako ezkutuzko aditzeen kasuaz Arzallusek esan duen gehiena faltsua da"

B.- "Garaikoetxeak ezkutuzko aditzeen kasuaz esaten duen dena egiazkoa da"

Ez dago berez bi perpaus hauetan kontraesankorra den ezer. Gainera autorreferentzia ez da ematen eta bata ez du bestea erreferentziatzat, E ala F izan daitezke inongo kontraesanik sortu gabe. Suposa dezagun ordea Garaikoetxeak berari egindako ezkutuzko aditzeen kasuaz A baieztapena egiten duela eta hauxe dela -A- telefono-pintxazoaren kasuaz esan duen gauza bakarra. Halaber, suposa dezagun Arzallusek, oso berritsua delako pintxazoaren kasuaz gauza asko esan dituela, edo bestela, bi baieztapen behintzat bai egin dituela, eta konprobatu eta frogatu denez errealitatean beharrezko ziren datu eta froga guztiez esan duenaren erdia, erdia zehazki, bakarrik direla egiazkoak, gainontzekoak, beste erdiak, adierazpen faltsuak direlarik. Eta gainera Arzallusek kasu honetaz esan duen azkeneko gauza, zeinaren egi balorea oraindik frogatu ez den, "B" baieztapena dela. Baldintza hauek ematen badira eta Garaikoetxeak kasuaz esan duen dena, hau da, "A" egiazkoa bada orduan Arzallusek telefono-pintxazoaren kasuaz esan duen gehiena faltsua izango da, hauxe delako Garaikoetxeak esan duena. Arzallusek kasuaz esan duen gehiena faltsua izan dadin, berak egin duen "B" baieztapenak, egin duen azkeneko kasuaz eta bere beste baieztapen guztien egiatasun eta faltsutasunaren

arteko balantza hausten duenak, faltsua izan beharko du, hau da, "Garaikoetxeak berari egindako ezkutuzko aditzeen kasuaz esaten duen guztia egiazkoa da" proposamenak faltsua izan beharko du, eta hauxe beraren kontrakoa da. Auresuposatu duguna hauxe ondorioztatzeko, kontraesana da. Suposatzen badugu Garaikoetxeak esaten duen "A" F dela, orduan Arzallusek kasu honetaz esan duen gehiena ez da faltsua izango, ondorioz "B" baieztapena Arzallusen ahotan, bere baieztapen guztien egi baloreen egitasun eta faltsutasunaren arteko balantza hausten duena denez ezin da faltsua izan eta egiazkoa izan beharko du. Egiazkoa baldin bada ordea Garaikoetxearen "A" baieztapenak E izan beharko du, Arzallusek Garaikoetxeak kasuaz esaten duen dena egiazkoa dela esaten baitu, eta hau ondorioztatzeko auresuposatu duguna hauxe bera, Garaikoetxearen ahotan, faltsua dela da. Berriz ere kontraesana ematen da; gertaera hau paradójikoa da.

Aparatu logiko-matematikoa

Hizkuntzaren filosofian aritzen diren pentsalarien ustez, lehen errealitateari buruz planteatzen zaizkigun arazo asko hizkuntzaren geure ezagutza eskasagatik da. Hizkuntza gure pentsamenduaren isladapena da, geure barne-ezagutzaren prozesuaren kanpo aztarna. Hortaz, hizkuntzaren barne-funtzionamendua, barne-logika ezagutzen dugun heinean, geure jakintza zabaldu egingo da eta lehenago ilun agertzen ziren arazo asko argitu egingo dira.

Orduan hizkuntzaren barne-logika aztertzeke logika "klasikoa" deritzona sortu zen hizkuntza analizatzeko, Frege, Russell eta Wittgenstein⁵ izan zirelarik autore garrantzitsuenetarikoak. Batez ere hizkuntza eta munduaren arteko harremanak hartzen zituzten kontutan, geuk geure sentimenez hautematen dugun mundua, ez beste bat noski. Logika klasikoak hizkuntzaren arlo asko eta asko formalizatzeko, nola pentsatzen dugun era logiko eta unibertsal batez azaltzeko, balio du. Badaude ordea beste arlo asko hizkuntza naturalan, "logikoak" ez diruditenak, ezin direlako logika klasikoaz formalizatu. Hizkuntza naturalaren adar "ez logiko" hauetako adibide adierazgarri eta garrantzitsu bat paradoxa logikoak dira eta horien artean garrantzitsuenetarikoa gezurtiaren paradoxa.

Logika klasikoan hizkuntza naturalaren barne logika aztertzeke akatsak nabaritzen dira agertzen diren "zulo" handiengatik. Puntu honetan Russellen ondoren zetozenei bi alternatiba geratzen zitzaizkien; batetik logika klasikoa onartuz hauxe zuzentzeko "petatxoak" jarriz hizkuntzaren adar hainbat eta gehiago formalizatzen saiatzea ala bestetik logika alde batera uztea eta hizkuntza ulertzeke eredu logiko batean behar eza mantentzea edo beste eredu logiko berri bat asmatzea.

Lan honetan arduratzen gaituen hizkuntzaren filosofoen mugimenduan ikuspegi berri batez planteatu zen hizkuntza naturalak aztertzea. Jarrera berri hau Russellenari alderatuz aurkeztuko dugu. Hauek, Austin izan

zuten aitzindari, intuizio ez formalizatuen bidez hasi ziren pentsatzen eta eratzen ulertzeko sitema berri bat baina logika formala, edozer behar den bezala demostratzeko beharrezkoa da.

Hizkuntzaren filosofo berri hauek berehala konturatu ziren akats hauen jatorria ez zegoela logikaren beraren baliozkotasunean baizik eta logika logikoaren oinarrian dagoen multzoen teorian. Paradoxak ez dira hizkuntzaren zulo beltz naturalak. Multzo-teoria klasikoan badago Fundazioaren axioma deritzona; axioma honek multzo oro ongi fundatua dela dio, ongi fundatua izateak multzo bat bere buruaren parte ez dela suposatzen du, hau da, multzo baten barrenean ezin da multzo berbera azaldu multzoaren osagai bat bezala. Zermelo-Fraenkel-en multzo-teoria honek ez du zirkularitatea onartzen, gezurtiaren proposamena bezalakorik ezin da multzo-teoria honen bitartez irudikatu. Austinen bidetik garatutako pentsalariak gezurtiaren proposamenaren izaera kontraesankorra honetan dagoela mantentzen dute. Pentsalari hauek honelako lanetan zebiltzala, Peter Aczel matematikariaren lana ezagutu zuten. Honek multzo-teoria berritu bat proposatu zuen fundazioaren axioma baztertzuz eta Antifundazioaren axioma deritzona barneratuz, zeinak bere buruaren parte ziren multzoak ez zituen galeratzen. Peter Aczelen lan honi Hipermultzoen teoria deritza, hipermultzo hauetan autorreferentzia eta zirkularitatea perpasuetan ahalezkoak dira.

Hipermultzoen teoria situazioen semantikaren oinarritzko multzo-teoria bilakatu zen.

Jarrera austindarra

A) Egiarren erantzuleak: perpausak, esaldiak, proposamenak

Tradizio logikoan perpausak berak, "aof"ak, adierazpen ongi formatuak, hartu izan dira egiaren erantzule bezala. Perpausak dira egiazko ala faltsu izan ditezkeenak, hizkuntzaren erregelak betetzen dituen perpaus bat ez zirkunstantzia ez kontestua eta ezta esanahia batere kontutan hartu gabe. Positibismoaren bidetik zientziaren alorreko perpausak eta zientziaren jakintza, "benetazko jakintza bakarra", zuten eredutzat. Zientziaren baieztapenak objektiboak dira, betirakoak, zirkunstantzia guztietan beteko direnak. Hauxe zen haien ardua; zientziaren egia finkatzea, zer egiazko eta zer faltsu zen zentzu orokor eta absolutuan. Zenbait perpaus edo proposamen ez ziren ez egiazko ez faltsu izateko gauza obserbazio zientifiko objektiboaren arabera, ezin ziren egiaztatu. Honetan ematen zen zientzia eta metafisikaren arteko zedarriketa...

Austindar ikuspuntua erabat bestelakoa da. Diferentzia azaltzeko adibide bat aurkezten dut:

- 1.- "The Earth is the third planet from the sun."
- 2.- "Earl is the third person in the line."

Bi perpaus hauek nahikoa antzekoak ematen dute estrukturaren aldetik, badago ordea bien artean diferentzia oso nabarmen bat, alegia, bigarren proposamenak zirkunstantzia eta situazioaren gain definitzen du bere egia, lehen zientziaren alorreko proposamen betierekoa da. Austinek irekitako hizkuntzaren analisiaren bide berrian perpausak ez dira oinarri bezala hartuko baizik eta esaldiak; hizkuntza erabiltzerakoan egiten ditugun ekintzak situazio berezi desberdinetan. Esaldiak egiazko ala faltsu kategoriatan neurtzen ez diren mila ekintza desberdinetarako erabiltzen dira; barkatzeko, eskaintzeko, adarra jotzeko, aurkezteko, iraintzeko eta abarretarako, horien artean esaldiak zerbait baieztatzeko, zerbaiten egiatasun ala faltsutasuna adierazteko erabiltzen dira. Baieztapenak, sinismenak, usteak eta proposamenak besteen artean dira egiaren erantzule direnak. Hauek munduaz edo zernahitaz (proposamen batez adibidez) zerbait baieztatzen edo mantentzen dute (adibidez egiatasuna ala faltsutasuna). Egiaren erantzule hauek beti ere esaldien eta situazioen arabera dira erantzule; proposamen, baieztapen, sinismen... Esaldi batek proposamen bat adieraz dezan bere presupostuak bete behar ditu. Adibidez "Maxek 31 dauzka" esanda, Max ez badago mus-partidan ez du esaldi horrek proposamenik mantentzen, ezin da ez egiazko ez faltsu izan, musean ez bagara ari. Ezta Maxek jokorik ez badauka ere edo 31 ez badauzka eta 32 badauzka proposamena faltsua da. Beste zenbait kasutan esaldi desberdinek proposamen berbera mantentzen dute, adibidez: "Honek 31

dauzka", "nere lagunak 31 dauzka", "Maxek 31 dauzka", "nik 31 dauzkat" esaldi desberdinek indibiduo berberaz ari badira proposamen berbera mantentzen dute musean ari bagara eta indibiduo hori jokoan baldin badago.

B) Mundua, Situazioak, Gertakariak.

Tradizio logiko positibistan munduan zen erreferentzia eta munduan egiaztatzen ziren perpausak eta ondorioz erabaki egiazkoak, faltsuak ala ez zientifikoak ziren, obserbazio zientifikoaren bitartez.

Austindar bidetik garatutako situazioen semantikan situazioak dira abiapuntua: situazioetan erabiltzen da hizkuntza ez mundu osoan... espazio eta denbora berezitan hizkuntzaren konbentzioez eta gizartearen konbentzioetan, situazioak munduaren parteak dira, zirkunstantzia bereziak dauzkatena, zirkunstantzia berezi hauek oinarri bezala hartuta erabiltzen dugu hizkuntza, konbentzioengatik, eta alor honetan analizatu behar dugu, neurri honetan.

Honetan situazio tipo deritzonak daude, "antzeko" diren situazio guztietarako erregela ematen dutenak. Situazio tipoak konbentzio sozialak dira, edozein esparrutan, edozein kontestutan konbentzio hauen bitartez ulertzen dugu elkar, konbentzio hauek komunean dauzkagulako. Adibidez situazio tipo bat enberraren zirkunferentziek arbolaren adinarekin duten erlazioa jakitea litzateke. Situazio tipo horren bitartez situazio batean ulertzen dugun gertakaria hauxe

litzateke: Urbasako harizti berezi batean moztutako haritz bakar bateko enborraren zirkunferentzia batek diametro berezi bat izatea. Kasu honetan situazio tipoaren bitartez ulertuko genuke adibidez haritz horrek 200 urte dauzkala. Gertakariak dira situazio berezitan proposamenak egiazko ala faltsu egiten dituztenak, -adibidez kasu honetan "200 urte dauzka" proposamena egiazko egingo luke halako gertakariak-, baina gertakariak ez dira berez ez egiazko ez faltsu, soil-soilik badira ala ez dira situazio berezi batean. Beste adibidean Maxek "de facto" 31 izatearen gertakariak "Maxek 31 dauzka" proposamena egiazko egingo du eta beste situazio batean Maxek 32 baldin badauzka faltsua egingo du proposamen hori. Jar dezagun beste adibide bat: "Karrera bukatu dut" esaten badut, esaldi honek situazio honetan nik filosofiako unibertsitate-ikasketa bukatu dudalako proposamena mantentzen du eta nere karreraren bostgarren urtea aprobatur bukatu izanaren gertakariak egiazko egiten du proposamena. Beste situazio batean; Carl Lewis-en ahotan ehun metroko korrikaldia amaitu duelako proposamena manten lezake edo nere arrebaren ahotan segurasko esaldi horren proposamena faltsua izango litzateke petrokimika-ikasketak ez dituelako amaitu. Baina "Karrera amaitu dut" euskarazko perpaus isolatuak, hizkuntzaren erregela eta konbentzioa eratu denak, ez du situazio berezi batetik kanpo proposamenik mantentzen, perpaus honek situazio tipo esanahi bat dauka situazio konkretu askotarako balioko duena. Denok ulertzen dugu gutxi

gorabehera zer adieraz dezakeen perpaus horrek, baina situazio berezi berri batean delarik pentsatzen ez badugu ezin dugu jakin zer adierazten duen "de facto".

Beste adibide bat: Kepak, hizkuntzaren filosofiaren irakasleak, "Hau makinaz garbiago pasa behar duzu!" esan zidan. Situazio horretan euskarazko perpaus horrek, esaldi horrek, gezurtiaren paradoxaren makinaz idatzitako lana garbiago berridazteko niri egindako agindua da. Beste situazio batean horixe bera; "Hau makinaz garbiago pasa behar duzu!", lantegiko nagusiak esaten badit adibidez leungailuaz (egur-pusken ertzak leuntzeko lixa paperadun makina elektrikoa da) egur-pieza baten ertzei berriz emateko garbiago eta leunago egon ditezten esan nahiko zuen. Esaldi honek ordea ez du inola ere inoiz proposamen bat mantenduko, agindu bat adierazten baitu beti.

Azken adibide bat honako hau litzateke: "Sei hilabete eman ditut lan hau behar den bezala burutzeko". Lan honetaz ari naiz; esaldi honek adierazten duen proposamena egiazkoa da. Hauxe bera Xabierrek -publikazio honetan beste lan bat aurkeztu duen Xabier Arraizak- bere lanean idatziko balu faltsua izango litzateke proposamena askoz ere denbora gutxiagoan egin baitu berak bere lana. Perpaus hori situazio berezi batean ez bada, ez da ez egiazko ez faltsu, euskarazko perpaus baten situazio tipo esanahi bat du soilik situazio konkretu askotarako balio duenean. Oraitxe bertan ordea, idazten ari naizen momentuan, idatzitako esaldi hori ez

da ez egiazko ez faltsu, ez delako proposamenik mantentzen; esaldiaren presupostuak ez ditu betetzen proposamena gauzatu dadin; lan hau, hauxe, ez baitut oraindik bukatu. Zuek irakurtzen duzuen momentuan egiazkoa izango da sei hilabete beteko ditudalako lan hau burutzeko, ziur nago.

Hizkuntzaren analisi russeldarrean situazio tipo esanahia perpausetan hartzen zen egiaren erantzule bezala eta hau ez da zuzena, perpausak situazio tipoak dira situazio konkretutan ez bada ez E ez F izan ezin daitezkeenak. Errealitatearen ulermenerako eta ezagutzaren akats asko, alderdi ilun asko, situazio eta situazio tipo bereizketa argi ez edukitzeagatik ematen dira.

"Landare guztiak bizirik daude" perpausa ez da berez ez egiazko ez faltsu situazio batean kokatzen ez badugu ondo definituz "landare guztiak" zeintzutaz ari den, noski konbentzioz garbi egonda bizirik izatea eta landare izatea zer diren, eta konprobatzen ez badugu situazio berezi horretan ba ote dagoen landare guztiak bizirik egotearen gertakaria. "Landare guztiak" terminua ez dugu inoiz landare guztiez erabiltzen, beti situazio konkretuetan erabiltzen baitugu munduaren partetan, munduaren parteez, ezin dira mundu osoaz izan esaldiak.

Soluzio austindarra

Esan dugunaren arabera gezurtiaren proposamena ere esaldi baten bitartez

situazio konkretu batean gauzatuko da eta proposamena gertakari batek egingo du egiazko ala faltsu.

Russellen bizarginaren paradoxan bizarginak Oxforden munduaz aparte egon beharko zuela ematen du, ez delako bera sartzen ez talde batean ez bestean, baina bizargina ez dela Oxfordekoa gertatzen bada problema eta paradoxa desagertu egiten dira bat-batean; "Badago gizon bat bere buruari bizarra mozten ez dioten Oxfordeko gizon guztiei eta bakarrik hauei bizarra mozten diena" ez dago paradoxarik, bizargina Cambridgekoa da. Era berean bizargina, nahiz Oxfordekoa izan eta nahiz gizona izan Oxfordeko gizonen multzoan, jaiotzez, edo hobe esateko; berez, tendentzia homosexualak eta trabestistak baldin badauzka eta hauenganako bazterten sozialaren ondorioz etortzen zaion depresio batez gorputzeko ile guztiak erortzen bazaizkio, peluka bat jartzen eta gainera operatu eta emakumeen ezaugarriak asumitzen baditu orduan bizarginak ez dio jada bere buruari bizarra moztuko; "Badago Oxforden gizon bat bere buruari bizarra mozten ez dioten gizon guztiei, eta bakarrik hauei, bizarra mozten diena" faltsu bilakatuko da kasu honetan badagoelako Oxforden gizon bat bere buruari bizarra mozten ez diona eta bizarginak bizarra mozten ez diona, paradoxa desagertu egingo litzateke situazio honetan. Bizargina emakumeen ezaugarri horiekin kontsideratzen badugu ez dela honez gero gizonen multzoan sartzen, bizarginaren proposamena egiazkoa izango da, bizargina ez delako Oxfordeko gizonen multzoan sartzen.

Bizargina trabestia deneko situazio honetan gizartearen konbentzioen arabera izango da bizarginaren proposamena egiazkoa ala faltsua, hau da, bizargina oraindik gizona dela kontsideratzen badugu proposamena faltsua izango da eta bizargina ez dela jada gizona kontsideratzen badugu proposamena egiazkoa izango da, inola ere ez paradójikoa edo kontraesankorra.

Ezin dugu gezurtiaren proposamena bide beretik mundu osorako formulatu, proposamen hau situazio berezitan, munduaren partetan bakarrik izango du zentzua. Munduaren parteak hartzen ditugu, esaldi eta proposamenean ari deneko parametro zehatza, ezin mundu osoa hartu. Garrantzitsua izango dena orduan parametroa, situazio berezia, munduaren parte ondo mugatzea izango da. Gezurtiaren proposamenak situazio desberdinetan gertakari desberdinez ez du zertan Russellen ustearen kontra paradoxara eraman behar, mundu osoaz orokorrean ari ez den bitartean, eta situazioen semantikaren arabera esaldiak beti situazio konkretuez ari dira, munduaren parteez. Gezurtiaren proposamena, ari den situazioaz gaindi jartzen duelako bere egia ezin da munduaren parte murriztuez besterik izan. Proposamena egiazkoa izango da esaldia egiten den situazio zabalago batean ematen bada gertakaria, horrelako

moduko situazioa eskatzen du gezurtiaren proposamenak. Proposamena mundu osoaz balitz erabakitzea mundutik at gelditzea bezala izango litzateke. Parametroa ondo, esplizituki agertu behar da, zeina Russellen teorian inplizituki suposatzen baitzen; parametroa kontutan hartu gabe perpausa kontsideratuz eta ez esaldia.

Itxuraz paradoxa ematen duten beste zenbait proposamen ere badaude, hauekin segituan konturatzen gara parametroa dela koska. Adibidez: telefonoz ari gara eta batak "4ak dira" esaten du, besteak aldiz momentu berean "5ak dira" esaten du eta biek diote egia. Ez da inongo kontraesanik; Iruñea-Londresen arteko ordu-diferentziagatik da, ordua ez baita denboraren kualitate propio inherentea baizik eta konbentzioz gauzatzen dena. Beste zenbait kasutan perspektiba- eta erlatibitate-arazoak dira, adibidez: nik "Pello Jonen eskubitara dago" diot eta zuk "Pello Jonen ezkerretara dago" diozu eta biok diogu egia; kasu honetan ikuspuntua ere kontutan hartu beharrekoa da, perpausetan bitar ematen duen erlazio bat egitan hirutarra baita.

Bukatzeko San Pablok Titore egindako epistolari kretar batek esaten zuena aipatzen dut: "Kretar guztiek beti gezurra esaten dute". Kretar hori ez da berak esaten duen kretar guztien parametroan erori behar.

Oharrak

1.-Logikan bat "1" notazioa proposizioa egiazkoa dela adierazteko erabiltzen da eta "0" faltsua dela esateko. Lan honetan ordea irakurle ez ohituarentzat lana errazago egiteko "E"=egiazkoa eta "F"= faltsua notazioak erabiliko ditugu.

2.-Barwise Jon. 1984 *The Situation in Logic-II; Conditionals and Conditional Information*. Stanford University.

-Barwise Hon, And Perry John. 1983 *Situations and Attitudes*. Oxford university Press.

Bi liburu hauetan azaltzen da hizkuntzaren analisiaren teoria berria aurkeztua.

-Barwise Jon and Etchemendy John. *The Liar, An essay on Truth and Circularity*. 1987, Oxford University Press.

Gezurtiaren paradoxaren gaia bereziki situazioen teoriaren ikuspuntutik aztertzen duen "The Liar" liburua sakonki estudiatu eta lan hau kontutan hartuta burutu dut nere lana.

3.- Aczel Peter. 1988 Non Wellfounded Sets. CSLI Lecture notes NO14 Aczelek eratutako aparatu matematikoa erabiltzen dute situazioen teoriaren hizkuntzaren filosofoek beren aurkikuntzak azaltzeko.

4.- Austin. 1988 *Como Hacer Cosas con Palabras*. Paidós, Bartzelona Austin. 1955 *How to Do Things with Words*. Harvard University Press.

5.- Frege Gottlob. 1962 *Estudios sobre Semántica*. Ariel Bartzelona. 1973.

Russell Bertrand. *La Concepción Analítica de la Filosofía*. 1981. Alianza Madril.

Russell Bertrand. *Lógica y Conocimiento*. 1981. Taurus.

Wittgenstein. *Tractatus Logico Philosophicus*. 1973 Alianza Madril.

Bibliografía

- ACZEL; *Non Wellfounded Sets*, CSLI Lecture notes NO.14, 1988.
- AUSTIN; *How to do Things with Words*, Harvard University Pres, 1955.
- AUSTIN; "Truth" in *Proceedings of the Aristotelian Society*, Oxford University Press, 1962.
- BARWISE, Jon; *The Situation in Logic -II: Conditionals and conditional Information*, Stanford University, 1984.
- BARWISE, Jon; ETCHEMENDY John; *The Liar, an Essay on Truth and Circularity*. Oxford University Press, 1987.
- BARWISE, Jon and PERRY John; *Situations and Attitudes*, Cambridge University Press, 1983.
- FREGE, Gottlob; *Estudios sobre Semántica*. (1962), Ariel Bartzelona, 1973.
- RUSSELL, Bertrand; *La Concepción Analítica de la Filosofía*, Alianza Madril, 1981.
- RUSSELL, Bertrand; *Lógica y Conocimiento*, Taurus, 1981.
- TARSKI; *The Concept of Truth in Formalised Languages*, Clarendon Press, Oxford, 1956.
- WITTGENSTEIN; *Tractatus Logico Philosophicus*, Alianza, Madril, 1973.